



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

**"ZAISA I" ETA "ZAISA III" EREMUETAN KAMIOIEN
APARKALEKUETARA SARTZEKO KONTROLA ERAMATEKO
KONTRATUA PROZEDURA IREKIAREN BITARTEZ ESLEITZEKO
KLAUSULA EKONOMIKO-ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN
PLEGUA.**

I.- XEDEA:

Plegu honen xedea zera da, ZAISA I eta ZAISA III eremuetan kokatutako kamioientzako aparkalekuetara sartzeko kontrol zerbitzuak kontratatzekeo prozedura arautuko duten arau eta jarraibide ekonomiko-administratiboak zehaztea, honako Plegu hau eta "Zehaztapan Teknikoak" izeneko III. Eranskinean adierazten diren zehaztapan teknikoak kontuan hartuz.

II.- KONTRATUAREN IZAERA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA:

II.1. - Lizitazioaren xede den kontratuak izaera pribatua du.

II.2.- Honako kontratu hau zuzenbide pribatuari lotuta dago ondorio, betetze eta iraungitze kontuetan, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 26 artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, zeinaren bitartez Espainiako ordenamendu juridikoari aldatzen zaizkion Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/UE eta 2014/24/UE Direktibak, aurrerantzean "SPKL", eta erregulazio harmonizatuari lotu gabeko kontratu bat da, aipatu arautegi horretako 22. artikulua araberan alderantziz adierazten dena kontuan hartuz.

II.3.- Honako kontratu hau prestatu eta esleitzeko garaian hauen bitartez arautuko da:

"S.P.K.L." legearen bitartez.

Klausula Administratibo Partikularren Plegu honen bitartez (aurrerantzean KAPP edo Plegua) eta bere karatulako zehaztapanen bitartez, hala nola esleipendunarekin formalizatuko den kontratuan jasotzen diren baldintzen bitartez.

II.4.- Kontratuaren esleipenduna behartuta egongo da zerbitzua betetzerakoan enplegatuko dituzten langileekin Lan eta Gizarte Segurantzako Legeria betetzera.

III.- ERAKUNDE KONTRATATZAILEA:

Erakunde kontratatzailea "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." da.

Aipatu elkarte horretako Administrazio Kontseilua izango da kontratazio-organoa.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

IV.- ESLEITZEKO ERA:

Kontratua prozedura irekiaren bitartez esleituko da, SPKL-ko 115 artikuluan eta hurrengoetan aurreikusten dena kontuan hartuz, Arau bereko 318 artikuluko edukiarekin bat etorritik.

V.- ALDAERAK:

Ez dira onartzen.

VI.- KONTRATUAREN IRAUPENA:

Plegu honek aipatzen duen zerbitzua burutzeko epea bi (2) urtekoa izango da, kontratu hau sinatzen denetik aurrera zenbatuta.

Kontratuko aldeak ados jarrita, kontratua amaitzen denean luzatu ahal izango da, gehienez jota beste urtebetez, beraz, guztira lau urte osatu arte, SPKL legearen 29 artikuluan zehazten dena kontuan hartuz.

VII.- LIZITAZIOARI KALKULATZEN ZAION AURREKONTUA. KONTRATUARI KALKULATZEN ZAION BALIOA:

Kontratuaren gehienezko aurrekontua eta lizitazio-tipoa 687.288 eurokoa da, gehi BEZ, eta lizitatzailerik kopuru horretatik behera hobetu dezakete beren eskaintza, bestelako kopuru zehatz eta jakin bat proposatuz.

Balio Erantsiaren gaineko Zerga bereizita adierazi beharko da eskaintzetan, tipo aplikagarria eta bere zenbatekoa aipatuz.

Aipatu prezio horretan sartuta daude kontzeptuetako bakoitzean zergapetzen diren tributuei dagozkien kuota guztiak, baita gaur egun indarrean dagoen Hitzarmen Kolektibo aplikagarrian ezarritako kontzeptu guztiak (soldata eta gizarte segurantzaren, oporrak, ordainketa bereziak, absentismoa, aseguruak, laneko arropa, etab.), baita garraioaren kostua, lizentziak, baimenak eta bestelako gastu orokorrak ere.

Kontratuari guztira kalkulatzeko balioa, SPKL-ko 101 artikuluan edukia aplikatu ondoren, Plegu honetako karatulako "D" atalean aipatzen den diru-kopurua da.

VIII.- ORDAINTZEKO ERA:

Kontratuaren prezioa plegu honetako karatularen "F" atalean adierazita dagoen moduan ordainduko da.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

IX.- PREZIOEN BERRAZTERKETA:

Ez dago horrelakorik.

X.- FINANTZAKETA:

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, finantzaketa aurreikusita dago aurtengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura.

XI.- LIZITAZIOAREN ETA ESLEIPENAREN PUBLIZITATEA:

Kontratuaren lizitazioa eta esleipena egiteko publizitatea "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeko kontratugilearen profilean egingo da, Euskadiko kontratazio plataforman kokatua.

XII.- BERMEAK:

BEHIN-BEHINEKOA:

Behin behineko bermerik ez da eskatzen karatulako K atalean esaten dena kontuan hartuz.

BEHIN BETIKOA:

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea osatu beharko du lehen mailako kauzio aseguruaren edo banku edo kreditu erakunde baten abal baten bitartez, lehen eskari edo errekerimenduan, zatiketa, eskusio eta orden eskubideak kontuan hartu gabe, esleipen prezioaren %5eko zenbatekoan, eta plegu honetatik eta formalizatuko den kontratutik sortzen diren obligazio guztiak bete daitezzen bermatzeko.

Honako behin betiko bermea osatzeko epea hamar egun baliiodunekoa izango da, "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundetik horretarako errekerimendua jaso duen egunaren hurrengotik aurrera zenbatuta.

Esleipendunak eskatu ahal izango du ordaindutako bermea itzul diezaioten kontratatutako zerbitzua betetzen amaitzen duenean eta, bere kasuan, berme epea igarotzen denean. Eskaria idatziz eta modu espresean egin beharko da eta itzulketarako ebazpena egin beharko du "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeko Administrazio Kontseiluak.

XIII.- GAITASUN BALDINTZAK:

XIII.1.- Proposamenak aurkeztu ahal izango dituzte pertsona fisiko edo juridikoek, espainiar nahiz atzerritarrek, jarduteko gaitasun osoa dutenean, kaudimen ekonomikoa,



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

finantzarioa, tekniko eta profesionala egiaztatzen badute, eta kontratatzeko debekuen kasuetan sartuta ez badaude.

XIII.2.- Onartutako eta Merkataritza Erregistroan entregatutako urteko kontuak aurkeztuta egiaztatu beharko dute lizitazaileek gutxienez 1.030.932 euroko zenbatekoa (BEZ sartu gabe) duen negozio bolumena duela aurreko hiru (3) urteetako (2016, 2017 eta 2018) negozio bolumenik handieneko urtean.

XIII.3.- Kaudimen tekniko hau dutela egiaztatu beharko dute lizitazaileek:

- Gutxienez bost (5) urtez lizitazio honen xede den zerbitzua bete izana, horietako bakoitzean egikaritzeko aurrekontua 114.548 euro baino handiagokoa izanik.

Hori egiaztatuko da azkeneko bost urteetan eginiko zerbitzuen zerrenda bat aurkeztuz (2014, 2015, 2016, 2017 eta 2018).

XIV.- PLEGUAK ESKURATZEA ETA PROPOSAMENEN AURKEZPENA:

XIV.1.- Proposamenak behar bezala aztertu eta prestatzarren, Baldintza Pleguak interesatuen eskura egongo dira "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen bulegoetan, Euskadi plazako 8 zenbakiko 7. eskuinean, Irunen, kokatuak, baita erakunde horretako kontratugilearen profilean ere astelehenetik ostiralera 09:00etatik 13:00etara iragarkia kontratugilearen profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

XIV.2.- Lizitazaileak proposamenak aurkeztu izanak adierazten du bere aldetik onartzen dituela plegu honetako eta kontratuko gainerako agirietako klausulak, baita aurkeztutako datu guztien zehaztasuna adieraziz, aitorten arduratsua eta kontratu honen xede den zerbitzua burutzeko exijitzen zaizkion baldintza guzti-guztiak betetzen dituela azaldu ere.

XIV.3.- Lizitazaileek egiten duten proposamenean adierazitako lizitazio kopuruan ulertuko da beti ere indarrean dauden xedapenen arabera aplikagarri zaizkion tributuak sartuta daudela, BEZa izan ezik, edozein kasutan partida independente eta bereizi gisa agertuko baita.

XIV.4.- Lizitazaileek honela aurkeztu beharko dituzte beren eskaintzak:

1. Plegu honetako karatulako "H" letran adierazitako datan.
2. Bai "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen bulegoetan, Irunen, Euskadi plazako 8 zenbakian, 7. eskuinera kokatuak, egun baliodunetan eta jendearentzat zabalik dagoen ordutegian (08:30-14:30 astelehenetik ostiralera); edo bestela helbide horretara zuzendutako



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

posta zertifikatu bidez, igorleak justifikatu egin beharko baitu Posta Bulegora zein egunetan bidali duen eta Kontratazio Organoari zaisa@zaisa.eus posta elektronikoa bitartez iragarri beharko dio eskaintza bidali duela. Proposamena ez da onartuko aipatu baldintza horiek betetzen ez badira edo proposamena jasotzen bada proposamenak aurkezteko epea amaitu eta gero.

3. Gaztelaniaz eta euskaraz idatzita.

XIV.5.- Lizitatzailerak behartuta daude beren eskaintza sei hilabeteko epean mantentzera.

XV.- BAZTERTZEKO ARRAZOIAK:

Lehiaketatik baztertuko dira ondorengo gorabeheretakoren bat izaten duten proposamenak:

- a) Eskatutako dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- b) Exijitutako kaudimen ekonomikoa, teknikoa eta profesionala egiaztatzea falta.
- c) Errekeritutako preskripzio teknikoak edo lizitazio-tipo maximoa ez betetzea.
- d) Gutun-azal bati dagokion dokumentazioa bestean sartzea.
- e) Honako plegu honetako obligazioak eta preskripzio teknikoen plegua ez betetzea.

XVI.- PROPOSAMENEN EDUKIA:

XVI.1.- Lizitatzailerak hiru gutun-azal itxi batera aurkeztuko dituzte eta lizitatzailerak edo bere izenean diharduen pertsonak sinatuta joango dira.

Aipatu gutun-azal bakoitzaren barnean lizitatzaileraren izen-abizenak adierazitako dira edo enpresa lizitatzaileraren izen soziala, baita plegu honetako karatulako "A" atalean aipatzen den kontratuaren xedea ere. Era berean, komunikazioetarako posta elektronikoa helbide bat adieraziko da.

XVI.2.- Hiru gutun-azalak IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A. erakundearen bulegoetan aurkeztuko dira, Euskadi plaza, 8 zenbakiko 7. eskuina, Irunen, kokatuak. Aipatu erakundeak ordainagiria egingo dio lizitatzailerari. Proposamenak aurkezteko epea Plegu honen karatulako "H" atalean eta IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A. erakundearen kontratugilearen profileen adierazten den egunean eta orduan amaituko da.

XVI.3.- Gutun-azalaren barnean, aparteko orri batean, bere edukia adieraziko da zenbatuta. "A" gutun-azalean joango dira hurrengo XVI.5 klausulan deskribatzen diren



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

dokumentu orokorrak, "B" gutun-azalean proposamen ekonomikoa eta "C" gutun-azalean, aldiz, proposamen teknikoa.

XVI.4.- Behin proposamen bat aurkezten denean ezingo da erretiratu.

XVI.5.- "A" gutun-azala: kontratatzeke ahalmena.

XVI.5.1.- Aitorpen arduratsu bat aurkeztu beharko da kontrataziorako dokumentu europar bakarraren formularioaren arabera, 1 ERANSKIN sinatu bezala erantsita, dagokion identifikazioarekin eta bertan lizitatzailleak, besteak beste, ondorengo alderdiak adierazi beharko ditu:

- a) Sozietatea balio osoz eratuta dagoela eta bere sozietate-xedearen arabera, lizitaziora aurkeztu daitekeela. Gainera, adierazpena sinatzen duenak behar besteko ordezkaritza duela proposamena aurkezteko eta baita harena ere.
- b) Kontratazioaren xede diren zerbitzuak betetzeko dagokion gaikuntza ofiziala baduela.
- c) Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioetan egunean dagoela.
- d) Berez kontratatzeke inongo debekutan ez dagoela sartuta.
- e) Jakinarazpenak egin ahal izateko posta elektronikoko baten helbidea identifikatzea. Posta horrek gaituta egon beharko du.

XVI.5.2.- Hainbat enpresari aldi baterako elkarte batean bilduta aurkezten badira, parte hartzen duen enpresa bakoitzeko aitorpen arduratsua aurkeztuko da eta bertan agertuko da kasu hauetan eskatzen den informazioa kontratatzeke europar dokumentu bakarraren formularioan.

Gainera, aldi baterako elkarte hori osatzeko bertan parte hartzen duten enpresarien aldetik konpromisoa dagoela adierazi beharko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 69 artikuluko 3. atalean esaten dena kontuan hartuz.

Inongo lizitatzailleak ezingo du proposamenik sinatu Enpresen Aldi Bateko Elkartearen bitartez beste enpresariekin, jada banaka egin badu.

Arau horren kontra joateak ekarriko duena da egindako proposamenak ez onartzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 139 artikuluan esaten dena aplikatuz.

XVI.5.3. Aitorpen arduratsuez gainera, atzerriko enpresek kontratatutik zuzenean edo zeharka sor litezkeen gorabehera guztietarako, Espainiako edozein ordenatuko Epaitegi eta Auzitegien jurisdikziopean egongo direlako adierazpena aurkeztu beharko



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

dute, eta, hala balegokio, lizitatzailari egoki lekiokoen atzerriko foru jurisdikzionalari uko eginda.

XVI.5.4. Kontratazio Mahaia lizitatzailari eskatu ahal izango die justifikatzeko agiri guztiak edo parte bat aurkez dezatela arrazoizko zalantza daudenean aitortpena indarrean dagoela edo fidagarria den ala ez, prozedura behar bezala joateko beharrezkoa denean eta, edonola ere, kontratua esleitu baino lehen.

XVI.5.5. Aurreko ataletan aipatu diren kontratatze ahalmen, kaudimen eta debekurik ezaren inguruko gorabeherak egiaztatuta egon beharko dute eskaintzak aurkezteko azken egunean eta kontratua hobetzeko momentuan mantendu egin beharko dira.

XVI.6.- "B" gutun-azala: Proposamen teknikoaren gutun-azala:

Memoria deskriptibo bat eta IV. ERANSKINEAN jasotzen den edukia elkartuta osatzen da.

XVI.7 "C" gutun-azala: Proposamen ekonomikoa:

"C" gutun-azalean proposamen ekonomikoa sartuko da plegu honetako III. Eranskina betez.

BEZ zergari dagokion zenbatekoa, edozein kasutan, partida independente eta bereizi bezala azalduko da.

Aurkeztu den eskaintzak dagozkion zerga eta gastu guztiak, BEZ izan ezik, sartuta dauzkala ulertuko da, adibidez, aseguruak, arantzelak, baimenak, udal lizentziak eta era guztietako baimenak, zerbitzua burutzeko beharrezkoak izan daitezkeenak.

Proposamen ekonomikoa behar bezala sinatuta aurkeztuko da eta ez da onartuko hutsune, akats edo zirriborrorik eskaintzaren edukia argi eta garbi ezagutzeko zailtasunak eragiten badituzte.

XVII.- KONTRATAZIO MAHAIA. PROPOSAMENAK IREKI ETA AZTERTZEA:

XVII.1.- Kontratazio-mahaia:

Kideak: "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen Kontratazio Mahaia era honetan osatuta geratuko da:

- Administrazio Kontseiluko presidentea edo hark eskuordetutako kontseilaria.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

- Kontseilari bat.
- Elkarteko gerentea.
- Kontseiluko letratu-aholkularia.

Osaera: Kontratazio Mahaia balio osoz osatuta geratuko da bere kide guztiak agertzen direnean.

Funtzioak: Euskadiko Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko Kontratazio Erregimenari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuko 9 artikuluan aurreikusten direnak.

Akordioak: Akordioak gehiengo bakunaz hartuko dira eta presidentek kalitatezko botoa izango du.

Laguntza teknikoa: Mahaiak laguntza teknikoa eskatu ahal izango du bileretarako.

XVII.2.- Eskaintzak publikoki irekitzea:

XVII.2.1. "A" gutun-azala irekitzea eta kalifikatzea:

Kontratazio Mahaia osatuta, saio pribatuan eta "B" gutun-azala ireki baino lehen, "A" gutun-azalean dagoen dokumentazioa aztertu eta kalifikatuko da.

Mahaiak ikusiko balu aurkeztutako dokumentazioan akats materialak daudela, komenigarri ikusten badu, gehienez hiru egun balioduneko epea eman ahal izango du lizitatzailleak akatsa zuzen dezan. Horretarako errekerimenduak posta elektronikoaren bidez egingo dira, enpresak lizitaziora aurkeztu duen dokumentazioan adierazitako helbidera zuzenduta.

Egindako guztiari buruz jasoko duen akta bat egingo da.

XVII.2.2 "B" gutun-azala irekitzea:

Behin "A" gutun-azala irekita eta bere kasuan akatsak zuzenduta, Mahaia saio publiko batean bilduko da "Irungo Aduana aldea sustatzeko Elkartea, S.A." erakundearen bulegoetan kontratugilearen profileen argitaratuko den egunean eta orduan, ondorio honekin:

- a) Lizitatzaillei jakinaraztea zein proposamen onartu diren eta zein ez, eta ez onartzeko izan diren arrazoiak. Gorabehera horiek kontratugilearen profileen argitaratuko dira eta era berean onartu ez diren lizitatzaillei ere posta elektroniko bidez jakinaraziko zaie.
- b) "B" gutun-azala irekitzea.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

Egindako guztiari buruz jasoko duen akta bat egingo da.

XVII.2.3 "C" gutun-azala irekitzea:

Behin "B" gutun-azalean jasotako atalei buruzko eskaintza baloratuta (proposamen teknikoa), Mahaia saio publiko batean eta konpainiaren bulegoetan osatuko da, ondorio honekin:

- a) Lizitatzaileri jakinaraztea "B" gutun-azalaren balorazioari buruzko emaitza.
- b) "C" gutun-azala ireki eta irakurtzea.

Gutun-azal hori irekitzeko gehienezko epea 20 egunekoa izango da, eskaintzak aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta.

Egindako guztiari buruz akta egingo da.

XVII.2.4 Sailkatzeko proposamena:

Mahaiak, aurkeztutako eskaintzak ikusita eta bere kasuan beharrezkoak diren txostenak aurrez eskatuta, txostena egingo du aurkeztutako eskaintzak sailkatuz beheranzko hurrenkeran, Plegu honetan esleipena egiteko garaian aipatzen diren irizpideak kontuan hartuz.

XVII.3.- Esleitzeko oinarrizko irizpideak:

Kontratazio Mahaiak txosten hori "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen Administrazio Kontseiluari igorriko dio Plegu honetako karatularen "P" atalean finkatutako irizpidea kontuan hartuz.

IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak, lehiaketa hutsik uzten ez badu, kalitate-prezioa erlazio onena duen proposamenari kontratua esleitzeko obligazioa izango du "C" gutun-azala irekitzeko egunetik zenbatuta hurrengo hamabost egunen buruan.

Erakunde kontratatzailearen Administrazio Kontseiluak esleitzeko erabakia hartzen duenean, eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatzaileri errekerituko zaio hamar egun balioduneko epean, IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen errekerimendua jaso duen egunetik aurrera zenbatuta, behin-betiko bermea aurkeztu dezala eta Ogasun Publikoarekin eta Gizarte Segurantzarekin dituen obligazioetan alta emanda dagoela egiaztatzen duen dokumentazioa, kontratazioaren xede diren zerbitzuak garatzeko ofizialki gaituta dagoela eta erantzukizun zibileko aseguruia eginda daukala dioen agiria ere aurkeztu dezala, aurretik ez badira aurkeztu; kontratua egikaritzera adskribituko dituela konprometitutako baliabideak dauzkala



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

egiaztatu beharko du aipatu legeko 76,2 artikuluan adierazitakoa kontuan hartuz, eta behin betiko fidantza osatu duela ere bai.

XVII.4. Errekerimendua aipatu epean betetzen ez bada, lizitatzailleak bere eskaintza erretiratzeko duela ulertuko da eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren %3a exijituko zaio zigor penal bezala.

Aurrekoa beteta, hurrengo lizitatzailleari ere dokumentazio bera exijituko zaio eskaintzen sailkapen-hurrenkeran.

XVII.5. Kontratazio organoak esleipen prozedura bertan behera uzten badu edo deialdia egiteko helburua zen kontratua ez egitea erabakitzen badu, lizitatzaillei jakinaraziko die.

Kontratua ez esleitu edo ez egiteko edo prozedura bertan behera uzteko erabakia Administrazio Kontseiluak erabaki ahal izango du formalizatu baino lehen eta kasu horietan onartutako hautagaiak konpentsatu egingo dira egin zitzaizketen gastuengatik.

XVII.6. Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak esleipendunari zentzu horretan eginiko errekerimendutik aurrera zenbatuta, gehienez bost egun baliioduneko epean eta IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak lizitatzaillei esleipenaren jakinarazpena egin eta aipatu esleipena kontratugilearen profilean argitaratzen denetik hamabost egun baliiodun igaro ondoren.

Horren kalterik gabe, aldeetako edozeinek eskatu ahal izango du eskritura publikoan jartzea, eskatzen duenaren kontura eta erantzukizunpean joango direlarik eskriturak publiko egiteko ordainsariak eta gastuak.

XVII.7. Kontratuaren sinatzea "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen bulegoetan egingo da, Euskadi plaza, 8 zenbakiko 7. eskuina, Irunen, kokatuta.

XVIII.- ESLEIPENDUNAREN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK:

XVIII.1.- Kontratatik eskubidea izango du prezioa jasotzeko.

XVIII.2.- Honako hauek dira kontratistaren obligazio bereziak:

- Kontratuaren xede den zerbitzua gauzatzea eta kontratuan ezarritako klausulak zorrotz betetz aurrera eramatea eta IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen arduradunen aginduetara.
- Behin betiko fidantza ordaintzea ezarritako epean.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

- Kontratua epe barruan formalizatzea.
- Kontratua indarrean dagoen bitartean kontratatzeke daukan gaitasuna mantenduko duela bermatzea eta IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeari hamabost egunetako epean, sortu diren bateraezintasunak eta ezintasunak jakinarazteko obligazioa izango du.
- Laneko Legeria, Gizarte Segurantzaren, Hitzarmen Kolektibo, laneko arriskuen prebentzio alorrean eta zerga gaietan indarrean dauden xedapen guztiak betetzea eta aipatu xedapenak ez betetzeagatik sor litekeen edozein erantzukizunetik "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." aske geratuko da.
- Emandako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule egitea, baita "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearentzat edo hirugarren pertsonentzat sor daitezkeen ondorioena ere, aipatu zerbitzua betetzerakoan gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo konklusio okerren ondorioz.
- Bai "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeari eta bai hirugarrenei eragin eta eginiko zerbitzuen ondorioz gerta daitezkeen kalteengatik indemnitzatu.
- Plegu honen karatulako "M" atalean aipatzen den aseguru poliza indarrean mantentzea.
- Lan baldintza minimoak:
 - Kontratu honek indarrean dauden legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak bete beharko ditu, lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikagarri diren neurrian.
 - Lizitatzailleak baldintza horiek betetzen dituela frogatuko du aitorten bat betez, alegia, Plegu honen II. ERANSKINEAN jasotzen dena. Kontratua sinatzen denetik aurrera aitorten hori hilerok aurkeztu beharko da eta nolana ere kontratua amaitutakoan.
 - Aurrekoaz gainera, "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak lizitatzailleari eskatu ahal izango dio ondorio hauetarako beharrezko ikusten duen edozein dokumentazio.
 - Aipatu berri den aitorten arduratsua aurkezteko obligazioa eta aipatutako dokumentazioa aurkeztea ere kontratuak ezartzen duen obligazio bat da eta hori ez betetzeak kontratua bertan behera uztea ekar dezake eta Plegu honetan aurreikusitako zigorrak ezartzea ere bai.

XIX.- "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." ERAKUNDEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK:

XIX.1.- Kontratua ongi betetzen dela ikuskatzea "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen esku egongo da bere arduradunen



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

bitartez. Arduradun horiek beharrezko jarraibideak eman ahal izango dizkiote kontratistari kontratua behar bezala bete dezan kontratuko klausulak kontuan hartuz.

XIX.2.- "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundea hitzartutako diru-zenbatekoak ordaintzera behartuta egongo da Plegu honetan VIII. Klausulan esaten denaren arabera.

XX.- KONFIDENTZIALTASUNA:

SPKL legean gai honi buruz ezarritakoaren kalterik gabe, "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." behartuta dago ez zabaltzera enpresarietik emandako informazioa hauek konfidentzial gisa aipatu badute, bereziki, sekretu tekniko edo komertzialen ingurukoak eta eskaintzetan agertzen diren datu konfidentzialak.

Esleipendunak isilpean gorde beharko ditu kontratuaren xedearekin zerikusia duen edozein datu edo aurrekin, publikoak edo agerikoak ez izan arren kontratuaren xedearekin zerikusia dutenak eta kontratuaren ondorioz ezagutzen dituenak. Obligazio hau betetzen ez bada "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak eskubidea edukiko du kontratistari erreklamatzeko ez betetze horren ondorioz jasandako kalteen ordainak. Kontratista behartuta dago, gainera, eskura ditzakeen datu edo informazioak, bere kasuan, izaera pertsonaleko datuak babesteko arautegian ezartzen dena kontuan hartuz erabiltzera.

Lizitatuzaileak bere borondatez entregatzen ditu prozeduraren markoan "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeari emandako dokumentazioan jasota egon daitezkeen datu pertsonalak, beharrezkoa balitz, datu horietan aipatzen diren hirugarren pertsonen baimena lortuko zuelarik "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeari uzteko atal horretan aurreikusten den ondorioetarako. Lizitatuzaileak berariaz baimentzen du ematen dituen datu pertsonalak edo prozedura honekin zerikusia dutelarik sortzen diren datuak "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen egon daitezkeen fitxategi automatizatueta sartzera, baita erakunde honek aipatu datuen tratamendua egitera ere, bere kasuan, egin daitezkeen zerrenda mantendu, garatu eta kontrolatzeko.

Bestalde, "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak, eman ahal izango zaizkion izaera pertsonaleko datuen tratamenduan segurtasuna eta konfidentzialtasuna bultzatuko du, ezinbestez bete beharreko igorketak burutzearen kalterik gabe, legez ezarrita dagoena kontuan hartuz.

Lizitatuzaileak sartzeko, zuzentzeko, indargabetzeko eta aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango ditu "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen egoitzan.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

XXI.- ASEGURUAK:

Esleipendunak, kontratuak irauten duen denboran, erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatuta eduki beharko du Plegu honetako karatularen M letran adierazten den terminoetan.

XXII.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK:

XXII.1.- Arau-hausteak:

Oso larriak, larriak edo arinak izango dira esleipendunak kontratua gauzatzen duen bitartean egin litzakeen arau-hausteak.

a) Arau-hauste oso larriak izango dira ondorengo arau-hauste hauek:

- Plegu honek ezartzen duen edozein baldintza edo eginbehar ez betetzea. Gainera, horrelakorik gertatzen bada, dagozkion neurriak hartu ahalko dira.
- "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen instalazio, prozedura, gorabehera eta abarrei buruzko datuen berri ematea.
- "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak enplegatutako bai langileei buruz eta bai harekin zerikusia duen erabiltzaile edo edozein pertsonari buruz ezagutzen dituen datuen berri ematea.
- Bi arau-hauste larri edo gehiago egitea.

b) Arau-hauste larriak izango dira ondorengo arau-hauste hauek:

- Lanak egiterakoan atzerapen ez sistematikoa gertatzea.
- "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak langile kontratatuen eskura jarritako baliabide materialak eta azpiegitura modu okerrean erabiltzea.
- Arau-hauste arinak behin eta berriz egitea.

c) Arau-hauste arinak izango dira aurretik aurreikusi ez diren haiek guztiak eta, nolabait ere, Baldintza Plegu honetan zehaztutako baldintzen kalterako direnean, zerbitzuan kalte larririk eragiten ez badute.

XXII.2. Zehapenak:

Pleguaren karatulako "n" atalean zehaztutakoak izango dira.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

XXIII.- KONTRATUAREN ZESIOA:

Kontratutik sortzen diren eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati utzi ahal izango zaizkio SPKL legean arautzen dena kontuan hartuz eta beti ere aurretik "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen baimen espresa eta idatzizkoa edukita.

XXIV.- BETE ONDOREN JASOTZEA:

Enpresa kontratistak kontratua bete duela ulertuko da, noiz eta kontratuko terminoen arabera eta "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." ERAKUNDEAREN modura eta hura asebeteta eman baditu zerbitzu guztiak.

XXV.- KONTRATUA AZKENTZEA ETA AMAITZEA:

XXV.1.- Kontratua suntsitu egingo da betetzen ez bada edo garaia baino lehen amaitzen bada.

XXV.2.- Kontratua amaitzeko arrazoiak:

Kontratua amaitzeko arrazoiak izango dira SPKL legeko 211. artikuluan aurreikusten direnak, baita Lege bereko 313. artikuluan jasotzen direnak ere, zerbitzuzko kontratuentzako bereziki, eta zehazki:

- Zerbitzua ematen hasi behar duenean atzeratzea edo zerbitzua bertan behera uztea, ezinbesteko arrazoiak tarteko direnean izan ezik.
- Laneko legeriaren alorrean arautegia ez betetzea.
- Izaera sozialeko gastuetan eta zergen alorrekoetan egunean ez egotea.

XXVI.- JURISDIKZIO ESKUDUNA:

Jurisdikzio organo zibila izango da aldeen artean sor daitezkeen eztabaidak konpontzeko kontratuaren ondorio, betetze eta amaitzeari buruzko gaietan.

Auzi bat sortzen bada, bi aldeak, bakoitzak bere foru edo helbideari espresuki uko eginda, Irungo Auzitegien jurisdikziora ezartzen dira.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

1. ERANSKINA
ARDURAPEKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Kontratatorako dokumentu europar bakarra (DEUC) betetzea, hemen kokatua:

[https://www.contratacióndelestado.es/wps/wem/connect/d715fcef-11a8-46c0-9906-5c82aa411aa2/DOC20171103132926DEUC_esp.pdf?MOD=AJPERES]



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

II. ERANSKINA

AITORPEN ARDURATSUA GUTXIENENKO LAN BALDINTZAK **BETETZEARI BURUZ**

J./A. Herria: Helbidea:
.....

NAN zenbakia, bere izenean edo enpresa honen izenean:
....., Herria: kalea: Tfnoa.:
..... eta IFK "IRUNGO ADUANA
ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundearen aurrera agertu da eta

ADIERAZTEN DU

"IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak deitutako ZAISA I eta ZAISA III eremuetan kamioiak aparkalekuetara sartzeko kontrol zerbitzua alokatzeko kontratuaren inguruan, bere ordezkatuari esleitua, gaur arte nire ordezkatuak bete dituela lehiaketako klausula ekonomiko administratiboen Pleguko XVIII.3 klausulan ezarritako lan baldintza minimoak.

Irunen,,



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

III. ERANSKINA **PROPOSAMEN EKONOMIKOAREN EREDUA**

J./A. Herria: Helbidea:
.....
eta NAN: bere izenean edo enpresa ordezkatzuz, helbidea:
..... Tfnoa.:
.....eta I.F.K. "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA,
S.A." erakundearen aurrera agertu da eta

ESATEN DU

"IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak eskainitako ZAISA I eta ZAISA III eremuetan kamioientzako aparkalekuetako sarbidea kontrolatzeko zerbitzuaren kontratazioan parte hartzeko asmoa duela eta

AITORTZEN DUT

Kontratazio hau arautzen duten Baldintza Ekonomiko-Administratibo eta Teknikoen Plegua ezagutzen duela, eta osorik beregain hartu eta onartzen duela.

Klausula Ekonomiko-Administratiboen Pleguko II. klausulan aipatzen diren testu legal eta erregelamenduzkoak ere ezagutzen dituela.

Ordezkatzen dudana enpresak betetzen dituela pleguetan exijitzen diren baldintzak eta obligazioak eta indarrean dagoen arautegia ere bai, kontratuaren xedea gauzatzeko.

Lehen aipatutako kontratuko prestazioak beteko dituela adierazitako dokumentazioa eta bereziki klausula ekonomiko-administratibo eta teknikoaren plegua zehatz-mehatz kontuan hartuta, EUROKO (€) zenbatekoan, kontzeptu guztiak barne, alegia, gastuak, zergak, tasak eta edozein alor fiskaleko arielak, BEZ sartu gabe.

Irunean,



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

IV. ERANSKINA **PROPOSAMEN TEKNIKOARI BURUZKO MEMORIA**

Kontratua esleitzeko garaian lizitatzailleek aurkeztu beharko duten memoria teknikoa baloratuko da. Memoria horrek ondorengoak jasoko ditu:

1.- Zerbitzua gauzatzeko proiektua: 15 puntu, gehienez.

Zerbitzua gauzatzeko proiektua ondorengo premisen arabera aurkezteagatik, lizitazio honen xede den zerbitzuarentzat sailkapen egokiena den hura ere baloraturaz, alegia, enpresak sailkapenean duen tokia baloraturaz.

- Zerbitzua gauzatzeko proiektua.
- Kontingentzien plan espezifiko, ezustekoen aurrean estaldura eta erantzuteko gaitasuna bermatuko duena.
- Zerbitzuko langileentzat formazio plan espezifiko.
- Gainbegiratzeko eta barne kontrola eramateko plana, emandako zerbitzuaren, prozeduraren maila ezagutzea eta akats posibleak ezagutzea ahalbidetuko duena.
- Uniformetasun proposamena.

1 puntu horretako proposamenaren luzera gehienez 25 orrikoa izango da. Hortik aurrerako orrietan ager daitekeen edukia ez da kontuan hartuko baloratzeko garaian.

2.- Kontratuari lotutako langileria (formazioa eta esperientzia):

- Kontuen arduradun edo zerbitzuko koordinatzaile posturako enpresek aurkeztutako curriculumagatik, honela banatuta:
 - Prestakuntza.
 - Esperientzia.
- Zerbitzua betetzera bideratzea proposatzen den langileen curriculum.
- Lana egonkortzeko plana.
- Eskualdatze edo lehengoratzeko plana: Plan espezifiko bat aurkezteagatik, non plantillako langileekin jarraitu beharreko prozedura adieraziko den kontratua amaitzerakoan eskualdatze edo lehengoratze kasuan.

3.- Pleguan hobekuntzak.

4.- Kalitatea ziurtatzeko Ziurtagiriak.

Irunen, 2019ko ak



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

V. ERANSKINA **BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA.**

1.-artikulua.- HELBURUA:

Plegu honen xedea da ZAISA I eta ZAISA III aparkalekuetako sarbidearen kontrol zerbitzua kontratatzea arautuko duten baldintza teknikoak zehaztea.

2. artikulua.- ZERBITZUAREN ORDU KOPURUA:

Aparkaleku bakoitzeko kontrolatzaile bat, eguneko hogeita lau ordutan (24) eta urteko hirurehun eta hirurogeita bost egunetan (365).

3. artikulua.- ZERBITZUAREN FUNTZIOAK:

Ondorengo funtzioak bete beharko dira: Bi aparkalekuetara ibilgailuak sartzeko kontrola, abonatuak altak eta bajak, aparkalekuak txukun eta garbi egon daitezela zaintzea, haiek antolatzea, errotazio erregimenean ibilgailuen aparkalekua kobratzea eta aparkalekuetara pertsonen sarbidea kontrolatzea.

Era berean, esleitutako langileek errondak egin beharko dituzte aparkalekuetan, arrisku egoerak, matxurak edo bestelako gorabeherak detektatzearen kamioietan eta/edo oinezkoen artean.

4. artikulua.- EMAN BEHARREKO ZERBITZUAK ZEHAZTEKO ERREGIMENA:

Bete beharreko zerbitzuen zerrenda hasiera batez eta modu orientagarrian ezartzen da eta aldatu ahal izango da zerbitzuren bat sartu, dauden batzuk kendu edo aldatzeko aukera dagoelako. Hori guztia "IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak esleipendunari formalki jakinarazita eta eskaintako prezio/orduen arabera ordainduta.

Zerbitzura esleitutako langilea sarbideen kontrolerako zerbitzuen enpresako profesionala izango da, behar bezala unformatuta egongo da eta eman beharreko zerbitzuen gorabeheretara egokitutako ezagutzekin eta gaitasun fisiko eta psikikoarekin, eta ingelesa eta frantsesaren ezagutza izango du ahozko mailan.

"IRUNGO ADUANA ALDEA SUSTATZEKO ELKARTEA, S.A." erakundeak edozein unetan eta zerbitzua ematen ari diren garaian esleipendunaren enpleguarekin errekusatu ahal izango ditu haren ustez exijitutako baldintzak ez badituzte betetzen.

5. artikulua.- MEMORIA:



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi nº 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

Kontrata esleitzeko garaian lizitatuzaileek aurkeztu beharko duten memoria teknikoa baloratuko da. Memoria horrek ondorengoak jasoko ditu:

Kontrata esleitzeko garaian lizitatuzaileek aurkeztu beharko duten memoria teknikoa baloratuko da. Memoria horrek ondorengoak jasoko ditu:

1.- Zerbitzua gauzatzeko proiektua: 15 puntu, gehienez.

Zerbitzua gauzatzeko proiektua ondorengo premisen arabera aurkezteagatik, lizitazio honen xede den zerbitzuarentzat sailkapen egokiena den hura ere baloratuz, alegia, enpresak sailkapenean duen tokia baloratuz.

- Zerbitzua gauzatzeko proiektua.
- Kontingentzien plan espezifiko, ezustekoen aurrean estaldura eta erantzuteko gaitasuna bermatuko duena.
- Zerbitzuko langileentzat formazio plan espezifiko.
- Gainbegiratzeko eta barne kontrola eramateko plana, emandako zerbitzuaren, prozeduraren maila ezagutzea eta akats posibleak ezagutzea ahalbidetuko duena.
- Uniformetasun proposamena.

1 puntu horretako proposamenaren luzera gehienez 25 orrikoa izango da. Hortik aurrerako orrietan ager daitekeen edukia ez da kontuan hartuko baloratzeko garaian.

2.- Kontratuari lotutako langileria (formazioa eta esperientzia):

- Kontuen arduradun edo zerbitzuko koordinatzaile posturako enpresek aurkeztutako curriculumagatik, honela banatuta:
 - Prestakuntza.
 - Esperientzia.
- Zerbitzua betetzera bideratzea proposatzen den langileen curriculum.
- Lana egonkortzeko plana.
- Eskualdatze edo lehengoratzeko plana: Plan espezifiko bat aurkezteagatik, non plantillako langileekin jarraitu beharreko prozedura adieraziko den kontratua amaitzerakoan eskualdatze edo lehengoratzeko kasuan.

3.- Pleguan hobekuntzak.

4.- Kalitatea ziurtatzeko Ziurtagiriak.

6. artikulua.- IRAUPENA:

Kontratututako zerbitzuaren iraupena urtebetekoa izango da, beste urtebetez luzagarria, kontratua sinatzen denetik, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguko VI. atalean adierazten den terminoetan.



SOCIEDAD PROMOTORA DE LA ZONA ADUANERA DE IRUN, S.A
Plaza de Euskadi n° 8, 7º Dcha.
20305 – IRUN

7. artikulua.- LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA:

Ezingo da kontratuak berezko dituen eskubideak eta obligazioen lagapena egin eta azpikontratatu